Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

165

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 2koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituen (Erein programa) urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren 2010eko deialdia finantzatzeko diru baliabideen zenbateko berria argitaratzen da.

2008ko urriaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (201. zk.) urriaren 7ko 171/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituena (EREIN programa).

Kontuan harturik 2010eko uztailaren 28ko Agindua (abuztuaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –165. zk.-argitaratua), Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, 2010eko deialdia egiten duena urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren babespeko laguntzetarako. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituen (Erein programa). Deialdi honetarako diru baliabideak 9.245.000 euro dira; horietatik, 8.620.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako kredituak dira; horietatik, 3.508.000 euro 2010eko ekitaldiari dagokio eta 5.112.000, berriz, 2011ko ekitaldirako konpromiso-kredituari, eta 625.000 euro, LGENFko erkidegoko funtsaren kargurako kredituei, zeintzuk Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari egindako ordainketen bidez aplikatuko diren.

Bere aldetik, dekretuaren hirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren laguntza-kopuru guztiak ez du deialdiaren aginduan urtero ezartzen den haren finantzaketara zuzendutako gehienezko zuzkidura gaindituko, ezta haren eguneratzetik lortzen den kopurua ere, indarrean dagoen legedian aurreikusitako kredituen edo aurrekontu-aldaketen arabera. Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko hori aldatu ahal izango da, egungo Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean agortu ez den

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

165

RESOLUCIÓN de 2 de diciembre de 2010, del Director de Desarrollo Rural y Litoral, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos destinados a la financiación de la convocatoria de ayudas del ejercicio 2010 del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Con fecha 21 de octubre de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 201, el Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Mediante Orden de 28 de julio de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 165, de 27 de agosto, se procedió a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2010, al amparo del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein). La dotación de los recursos económicos para la presente convocatoria asciende a la cantidad 9.245.000 euros, de los cuales 8.620.000 euros corresponden a créditos con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los cuales 3.508.000 euros corresponden al ejercicio 2010 y 5.112.000 euros a créditos de compromiso para el ejercicio 2011, y 625.000 euros corresponden a créditos con cargo al fondo comunitario FEADER, que se aplicarán mediante los correspondientes pagos que realice el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por su parte, el artículo tercero del Decreto establece que el volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la dotación global máxima destinada a su financiación que anualmente se establezca en la orden de convocatoria, o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros pro-

aurrekonturik izanez gero, laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Hala gertatuz gero, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko da.

Esangura horretan, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak, aurreikusitako eskabide kopuru handia eta dagoen aurrekontua kontuan izanda, beharrezko izapideak egin eta gero, eskuragarri dauden kredituak handitzea erabaki du deialdiari aurre egiteko. Handitzeko zenbatekoa: 1.569.800 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

Gehitze horren ondoren, 2011ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emango diren laguntzek 10.189.800 euro jotzen dute. Kopuru horretatik 4.997.800 euro 2010eko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta 5.192.000, berriz, 2011ko konpromiso-kredituari.

Adierazitakoaren ondotik, zera

EBATZI DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituen (Erein programa) urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren 2010eko deialdia finantzatzeko diru baliabideen handitzea argitaratzen da. Zenbatekoa: 1.569.800 euro euro. Gauzak horrela, 2010eko EREIN programaren laguntzen deialdia finantzatzeko diru baliabide guztiak 10.814.800. euro dira; horietatik, 4.997.800 euro 2010eko ekitaldiari dagozkio eta konpromiso-kredituko 5.192.000 euro 2011ko ekitaldiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura eta 625.000 euro, berriz, LGENFko erkidegoko funtsaren pentzutan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 2a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN PABLO MEDRANO OLMEÑO.

gramas de ayudas del ahora Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral en el Boletín Oficial del País Vasco.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral dado el volumen de solicitudes previsto y la disponibilidad presupuestaria existente, previa la realización de los trámites oportunos, ha acordado incrementar los créditos disponibles para atender la convocatoria en la cantidad de 1.569.800 euros con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Como consecuencia de esta ampliación, la cuantía total autorizada para la convocatoria con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de País Vasco asciende a la cantidad de 10.189.800 euros, de los cuales 4.997.800 euros corresponden al ejercicio 2010 y 5.192.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2011.

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Dar publicidad al incremento de los recursos económicos destinados a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein), en la cuantía de 1.569.800 euros. Así, la totalidad de los recursos económicos para financiar la convocatoria de ayudas del Programa Erein para 2010 ascienden a la cuantía máxima de 10.814.800 euros, de los cuales 4.997.800 euros corresponden a créditos del ejercicio 2010 y 5.192.000 euros a créditos de compromiso para el ejercicio 2011 con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y 625.000 euros a créditos con cargo al fondo comunitario FEADER.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de diciembre de 2010.

El Director de Desarrollo Rural y Litoral,
JUAN PABLO MEDRANO OLMEÑO.